

...eta **kitto!**

739 zkia. 2010-XI-5

ASTEKARIA

TOKIKOM



DEBEGESA: 25 urteko zeharkaldia

Zuretzako...


Lentseak + armazola erositak, m6 markako armazola + kalitate bereko lentseak oparitutako dizkizugu.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR


MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Hortzordeekin arazoak?



Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



Goiko aldeko inplanteak

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio **BERRIAK** inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.

Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR www.esteticadelasonrisa.com



Andoni Guisasaola Ron Dokorea
R.P.S. 156/5

Soraluzen Gaztañerre Azoka 2010



Baserria Bizirik!

Azoka Eguna, azaroak 13

astean zehar talo eta txalaparta ikastaroak, erlezaintzari buruzko hitzaldia, pilota partidak, edota ardo eta gazta dastaketa besteak beste...





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARAGAZKIA:

Debegesa

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GORBEIXAN ITXURAKO IPUR-MAMIÑAK.- Norbaitek ipurdi handia duela esateko konparazioa. "Bata zan ezpala baiño argalagua, bestiak, barriz, Gorbeian itxurako ipur-mamiñak eukazan".

GORRIXAK IKUSI.- Egoera larrian egon. "Ha zan asmu ederra gogortzen zan artian, gorrixak ikusi genduzen hango bihariñ guztiok".

ESKUTITZAK

ESKERRIK ASKO

Hónek lerruon bittartez, eskerrak emon nahi ditut gure aitta zanaren izena Portalean gela bati ipiñi detselako. Bere famelixaren partez.

KONTXA LASPIUR

TALLARRA GAZTETXIAN ERRESISTENTZIA

Azaroaren 2an, eguerdiko hamabietan, Eibarko udaletxean, gaztetxeko eraikinari dagokion "levantamiento de actas" aurrera eramana da.

Horren bitartez, udalak gaztetxea nahi duenean botatzeko eskubide legala lortu du. Tallarra gazte-

txeko asanbladak, horri aurre egiteko, bertan erresistentzia egitea erabaki du.

Egun bereko eguerdiko hamabietan, udaletxe parean, kontzentrazioa egin zen, **Tallarra eta gune askeak maite ditugulako** lemapean. Bertan 50 bat lagun batu ziren, udaletxearen proiektuarekiko desadostasuna adierazteko. Bestalde, arratsaldeko zazpitan, manifestazio jendetsua irten zen udaletxe plazatik.

Tallarra gaztetxeak bizirik dirau, eta ekintzak antolatzen jarraitzen du. Okupazioa eta autogestioa aurrera!

TALLARRA GAZTETXEA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Gizonak gazte, aberats eta konpainian, hau da, zainduta, hiltzen dira; emakumeak bakarrik, pobre eta babesgabe. Emakumeak kolpeko gaixotasunen bat izateko desgrazia baldin badu, adinagatik oraindik egokitzen ez zaiona, senarrak ez daki nola zaindu: gizon hori ez da sozializatu zaintzaren alorrean. Semeak eta alabak agertzen dira orduan, batez ere azken hauek. Zaintzaren feminizazioak emakumeari lan karga eragiteaz gain, haiek zaindu behar direnean, ez daude ondo zainduta"

(Maria Silvestre, Jaurilaritzako Emakundeko zuzendaria)

"Apolitiko guztiak eskuindarrak diren bezala, talderik ez dutela diotenak Real Madrilekoak dira. Interneten larrutzen naute, baina Bilbon sortu izana barkatzen ez didatenak pozik lagatzeko, zer egin behar dut? Suizidatu? Telebistan egin dezakezun okerrera ez da telezaborra, gaizki egindako telezaborra baizik. Ez pentsa jendeak eztabaida gaiztotu eta zaratsuak nahi dituenik, baina futbolari bokadiloo, kaxondeoa eta Marcaren txorakeriak kentzen badizkiozu, zer geratzen da?"

(Patxi Alonso, kirol kazetaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

VAYA SEMANITA

Amañako jaixak udan izaten badira be, "Vaya Semanita" antzezlanarekin urtarrillian bertan gozatzeko aukeria eskinduko deskue jai batzordekuak. Urtarrillaren 8xan Coliseoan izango dan antzezlanerako sarrerak 22 eurotan dagoz salgai Juanito, Kili-Kili, Caserio eta Portalea tabernetan eta Kros Sports dendan.

MAKILLAU LEHIAKETIA

Azaruaren 28xan San Andres jaixen inguruan antolatu dan makillau lehiaketan parte hartzeko epia azaruaren 12xan itxiko dabe. Izena emoten daben bikotiak ordubeteko tartia eukiko dabe antolatzailliak ezarrirttako irizpidieri jarraituta makillaua preparatzeko eta, betiko moduan, sarixa eukiko dabe lehelengo hirurak. Argibide gehixagorako edo izena emoteko Pegorara jo bihar da.


Errebali buruzko asmuak buzoietan

EGUNOTAN EIBARTAR GUZTIEN BUZOIETARA ERREBALLEN INGURUKO INFORMAZIONA BANATUKO DABE PSE-EE alderdikuak, eguazten gozian "Casa del Pueblo" talde politikuairen egoitzan prentsaurreakuan azaldutakuari jarraituta. Miguel de los Toyos alkatiak Eneko Andueza eta Arcadio Benítez ziñegotzixak euki zittuan aldamenian agerraldixan eta, azaldu ebenez, "herrittarreri gai honen gairian euki leikiazen zailantzak argitzeko ahalegiñari" jarraituz erabagi dabe hiru galdera nagusiri erantzuten detsan liburuxka kaleratzia: "Zer gertatu da?", "Zer ari da gertatzen?" eta "Zer gertatuko da?". Orohar,



oiñ arte Udalak esaten jardun dabenaren bidetik doiaz idatziz laburbildu dittuen azalpenak: promotora birekin harremant dagoz eta atzera be hasierako proiektuari heldu nahi detse (merkatu plazia, supermer-

kaua, merkataritza zentrua, aparkalekuak...). Kondiziñuak batzen dittuan pliegua lantzen dihardue oindiok (amaitzeke dago), baiña 2011rako, uda partian biharrian hasteko moduan izatia espero dabe agintarixak.



Martin Beramendi Hamaikabat-eko bozeramaillia berbetan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Hamaikabat-ek egoitza zabaldu dau

ZAPATUAN INAUGURAU EBEN SAN JUAN KALEKO 1. ZENBAKIXAN Hamaikabat alderdixaren bulegua, H1!-eko Eibarko ordezkariak ez eze beste herrixetatik etorrittako beste hainbat alderdikide batu zittuan ekitaldixan. Dantzariak lokalaren sarreran, kalia eskindutako saiuairen ondoren, taldeko ordezkariak egiñ eben berba, tartian Iñaki Galdós alderdiko buruak.

OINETAKO KONPONKETA AZKARRA

Don Takon

merkeena deskontuekin

BAITA... Giltzen kopia Konponketak (poltza, gerriko,...) Larruzko artikuluen salmenta

639-236-774 Ibarkurutze, 7 - behea

KATU

KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA

66553

...eta kitto!-ko

GABONETAKO LOTERIA

salgai duzu:

- Mujika harategia
- Urkizu prentsa
- Bolintxo
- Zabaleta okindegia
- Narrua konplementuak
- San Andres gozotegia
- Astasibar kirolak
- Kultu taberna
- Valenciaga jantzidenda
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Untzaga prentsa
- Dibutec fotokopiadenda
- Zubi-Gain kafetegia
- Bankoa
- Correos
- ...eta kitto!

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da



Markel Olano Coliseoan izango da

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK "ZURE HERRIAN" IZENEKO EKIMENARI JARRAITUTA, Markel Olano ahaldu nagusixa Eibarren izango da, Eibar eta Soralezeko 150 bat herritarrekin alkartu eta *"etorkizunera begirako arazuak eta erronkak konpartitzeko"*. Azaruak 11, 19.00etan Coliseoan izango dan ekitaldixan Olanok zuzenian entzungo dittu partai-

diak egindako ekarpenak eta kritikak eta berari egindako galderak erantzuten ahaleginduko da. Ekitaldixa irekixa da eta jua nahi dabenak 943112290 telefono zenbakira deitzeko aukeria daka edo, nahixago izanez gero, kabinetea@gipuzkoa.net helbidera idatzi leike. Eibarren ez eze, beste herri batzuetan be egon da Olano horrelako saiuk eskintzen.



Iurretako institutuarekin hitzarmena

ARMERIA ESKOLAK ETA IURRETAKO INSTITUTUAK IN-DARRAK BATZEKO HITZARMENA siñatu barri dabe, lanbide heziketan egon leikian eskariari ahalik eta modu egokixenian erantzuteko helburuarekin. Ikastetxe bixetan formakuntza iraunkorra eta okupazionala eskintzen dabe eta, bixak alkartuta, elektrizidadia, elektronikia,

informatikia, telekomunikaziñuak eta beste arlo batzuk lan-tzen dittuen 70 bat ikastaro emongo dittue ikasturte honetan, gehixenak entidade publikuak diruz-lagundutakuak. José Luis Novoa (Armeria Eskola) eta Tomás Maguregi (Iurretako institutua) ikusten dittuzue argazkixan, hitzarmena siñatzeko orduan.

anzorik anzo



Untzagako jubilau etxia txiki geratu da

Udalak Txaltxa Zelaiko parking publikuari 8 plaza erosteko erabagixa hartu dau oiñ hurrengo, plenuan, Untzagako jubilau etxiari toki gehixago emoteko asmuari jarraituta. Aspaldidanik dihardue esaten Untzagako jubilau etxia txiki geratu dala. Izan be, 1.300 bazkide dittu Untzagako jubilau etxiak, herriko erdialdeko jubilauak ez eze, auzuetako beste asko be erakartzen dittalako. Gaiñera, bertan garatzen dittuen jarduereri begira be, programaziño bete-betia eukitzen dabe. Horregaittik, eraikiñari metro gehixago emoteko aukerak aztertuta, pegauta dagan parkiñetik aparkatzeko 8 toki hartu eta metro batzuk gehitzeko aukeria aurreikusi dabe. Aparkatzeko tokixak erosteko 320.000 euro erabiliko dittuela aurreikusi dabe. Erabagixa PSE-EE eta EAJ alderdixen aldeko botueri esker hartu da. Abstenziñuaren bidia hartu eban PP alderdixak oin momentuan holako proiektuari heltzia "lujotzat" jo eban eta Ezker Batua-Berdeak eta Aralar taldiak, barriz, gastau biharreko dirutza oso gogor kritikau eben.

eibar kaleka

Legarre-Gain kalia

Izenak aditzera ondo emoten daben moduan, aurreko astian atal honetan bertan protagonista izan zan Legarre kaliaren gaiñan doianari deitzen jako. Bertara aillegatzeko igo biharreko eskillarak ez dira gitxi, baiña goititik oso bista onak dagoz.

Pegora kopurua: 17.

Erroldatutakoak: 470



asteko

%9,9

datua

bakuna gitxiago ipiñi dittue aurtengo gripearen kontrako kanpainaen barruan, 2008ko datuekin konparatzen hasita. Horregaitik, Osakidetzak hillebete luzatu dau aurtengo kanpaina eta, beraz, azaruaren 27ra arte egongo da martxan.



Merkatu Plazako urriko zozketa

ROSARIO CAVIA GONZÁLEZEK IRABAZI DAU MERKATU PLAZAKO DENDARIXAK URRIAN EGINDAKO zozketako sari nagusixa, 200 euroko erosketa-txartela. 25 euroko txartel bana eraman dittuenak, barriz, jarraixan aittatzen dittugunak izan dira: M^a Luisa Unanue, Asun González Varona, Inés Carballo González, Julián Arzuaga Calvo, Elena Simán Cid, Ana Usatorre Juaristi, Manuel Sotelo Rodríguez, Pilar Jauregi, Marisol Corcuera, Beatriz Zabala Garitamendia, Alicia Mochales Cebrián eta M^a Fé Gorrotxategi Mendizabal.

Memorixaren autobusa gaur Txaltxa Zelaixan

URRIAREN 16-XAN BERE BIDIARI EKIN ZETSAN IZARREN ARGIA PROIEKTUARI LOTUTAKO autobusa gaur Eibarren daukagu. 19.00ak arte Txaltxa Zelaixan egongo dan autobusak herritar guztiendako atiak zabalik eukiko ditu. Aurreko astian aurreratu genduan moduan, gerra sasoiari, militarren altxamenduan edo ostian etorri zan errepreziño frankistan hildako lagun baten izena idatzita eukiko daben izartxuak autobusak irudikatzen daben "zeruan" pegatzen juateko aukeria eukiko dau jendiak, modu horretan hildako guztiak goguan hartuta.



Jarduerekin segiduko dabe gaztetxeak

TALLARRA GAZTETXEAK EKITALDI-XAK ANTOLATZEN SEGIDUKO DABE, eraikiñetik kanpora botatzera doiazan bittartian. Martitzen goizian bertan sartu zan indarrarian eraikiña hustu eta eraisteko agindua, baiña

eraikiñaren jabia dan Udalak hori ofizialki aditzera emon zetsen arren, makiñak noiz sartuko dittuen ez detsela ziheztu diñue gaztiak. Gauzak holan egonda, martitzenian konzentraziño jendetsua egiñ eben goizian eta arratsaldian.



Tallarra gaztetxearen aldeko protestaldia udaletxearen aurrean. / MAIALEN BELAUSTEGI

Bixen bittartian, betiko martxan ekitaldi-xak antolatzen jarraituko dabe: gaur 22.00etatik aurrera kontzertua eskinduko dau Josu kantautoreak eta domekan, berriz, 18.30etan "Persépolis" pelikulia emongo dabe.

Alfa sortu zala 90 urte bete dira

URRIAREN 28-XAN, AURREKO ASTIAN 90 URTE BETE ZITTUAN Alfa enpresak. 1920xan gertatu izan zan greba luze eta latz batek eraginda, armagintzako bihariñ espezialista batzuk batu egin ziran Kooperatibia antolatzeko asmuarekin eta holan, testuinguru horretan jai-

xo zan gure herriko lantegi enblematikuenen artian daguan hau. "Sociedad Anónima Cooperativa de Producción de Armas de Fuego Alfa" izena hartuta, 300.000 pezetako kapital sozialarekin, Alfak beti eutsi nahi izan detsa sortzaillak emon zetsen kooperatiba izaera horrerri.

Pirritx eta Porrotxen ikuskizun barrixa abenduan



PAILLAZUEN IKUSKIZUN BARRIXA, "ONGI ETORRI... PUPU ETA LORE", Eibarren izango da abenduaren 11n eta 12xan. Zapatuan 16.30xetan eta 19.00etan, domekan, 16.00etan eta 18.30xetan. ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazki-diendako aurrezalmenta (hiru sarre-ra bazkide bakoitxeko) azaruaren 15a eta 26xa artian izango da (bixak barne) eta jarraixan herriko hainbat puntutan izango dira salgai. Prezioa eta salmenta puntuak datozen astiotan jakiñaraziko dittu elkartiak.

Azken aldixan, bai hamen eta baita Estatu Batuetan be, bateko zein besteko gobernuak drogak legalizatzia ren autua izan dabe mahai gainian. Gero eta zabalduago dago hainbat gaixotasunendako kalamuak eta halakuak lagungarri izan leikezela eta horrek merezi dabela oingo egoeriarri buelta batzuk emotia.

Drogak legeztatziaren alde zagoz?



AMAIA MURUAMENDIARAZ
41 urte
administrarixa

Legalizatzia ez dot txarto ikusten; norberak jakin bihar dau zer egin bihar daben. Buruarekin jokutzen jakin bihar da. Zenbait gaixotasu-netarako be entzun dot ona dala.




ALEJANDRO LEAL
43 urte
metalurgikua

Esparru terapeutikuan erabiltzeko bada, ondo ikusten dot, esaten dabenez lagundu egitten dau-eta. Bestela, ez dot ondo ikusten cannabisa legalizatzia.


IÑAKI GARATE
49 urte
bihargiña

Legalizatziaren aldekoa nahiz. Kimiuk moduko tratamientuak hobeto eruaten laguntzen dabela esaten dabe eta, holan bada, ez dot ikusten arazorik.



OLGA ARRANZ
72 urte
etxeoandria

Legeztatzia ondo ikusten dot; hobe dala begittantzen jata. Gauzak debekatzen diranian, beti izaten da txarrerako. Dana dala, bakotxak ikusi biharko dau...



EGOITZA NAGUSIA
Bilberrista 20 - Lehea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laber
Egaitzen (Signo poligonoan)
Partikular, natua eta osaguri-esesi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urtumanoa arbelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen ditugu
Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funerariak laber

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

OKora eibar
Isasi, 18 943 53 12 59

100 m²ko autozerbitzua

**Altzariak.
Menajea.
Bainurako osagarriak.
Ehungintza.
Argiztapena.
Opari pertsonalak.
Osagarriak.**

– euritako-ontzia (New York): 43'90 €
– autobusa (Londres): 27 €
– koadroa (Muxua): 65 €
– pub zuria: 95 €

Debegesa gure baillararen garapenerako agentziak mende larena betetzen dau aurten. Hori ospatzeko, apal jokatu arren, ekitaldi berezi bi antolau zittuen juan dan astian: eguaztenian, Debabarrenako Gizarte Baliuen lehelengo sarixa banatuta, berori Tere Gantxegi eibartarrari emonaz; eta barixakuan, Lurralde Lehiakortasunaren inguruko jardunaldixan, Patxi López lehendakarixa izan zan. Berarekin batera, Markel Olano Gipuzkuako diputatu nagusixa, Lourdes Idoiaga Eudeleko Batzorde Eragillekua, Iñaki Urrizalki URA agentziako zuzendarixa, Augusto Uriarte Garapen agentzien euskal elkarteko presidentia eta Debabarrenako udaletako ordezkariak izan ziran. Ponentzia nagusixa Jon Azuak eskindu eban: e.novatinglab-eko sortzaillia da bera.

Gure baillarako Garapen Ekonomikora-ko alkartia 1985etik dabil biharrian: Debegesa izan zan, gaiñera, Estatu-ko tokiko lurralde garapenerako lehelengoagentzia. Sorreran aitzindarixa izatiaz gaiñ, aitzindarixa izan da proiektu eta ekimenak martxan jartzen be. Oin momentuan buru-belarri dabil “Debabarrena Balioan” proiektuarekin eta hor kokatzen da Tere Gantxegiri Olano diputatu nagusixak emondako sarixaren nondik norakua. Garapen agentzian argi dake proiektuaren helburua: *“Eskualdearen garapen iraunkorra lortzeko biharrezkoak diran gizarte baliuak sustatu bihar dira; aurre-rapen materialak bai, baiña baita gizarte maillako aurrerapenak be”*.

Juan Angel Balbás Debegesako bigarren gerentia da eta berak be, 25ak ez, baiña hogegei urte inguru daroiaz karguan. Oso pozik dago ospakizunekin: *“Lehelengo ekitaldixan jendiarekin konpartitu nahi izan genduan*



Eskualdeko kohesiñua billatzen dau Debegasak bere sorreratik eta, horretarako, adin guztietako jendia hartzen dau kontuan.



Mende larena ballararen alde

baloriak zer diran, eta hórrek baloreok berreskurau bihar dirala eta daken garrantziaren jabe egin bihar garala azpimarratzen ahalegindu giñan”. Bigarren ekitaldixa, lurraldiaren garapenaren ingurukua, *“instituzionalagua”* izan zala onartzen dau Balbás-ek. Barruko jendiarekin be, bihargiñekin, mende lareena ospatzeko tartia izan dabela ahaztu barik.

Estrategiaren bidiak markatuta

Plan estrategikuak zehaztu eta horren arabera funtzionatzen dabe Debegesan: *“Lehen 5-6 urtekuak izaten ziran; gaur egun, 3-4kuak. Beti be, hórrek rebisau eta estrategia barrixak proiektatzen jarraixan. Hori bai, badakagu urteroko gestiño plana”*. Plan gehixenak bete dittuela diño Debegesako gerentia: *“Gitxi izango dira bete barikuak; gertau leike asmo bat izan eta 2-3 urte geruago betetzia, baiña bete bete dira”*.

Oin dala mende larena bost laguneko taldiak osatzen eban orduko Debegesako egituria. Gaur 17 nomina dira bertan. Orientaziñuan be aldaketia egon da: lehen enpleguari begira egitten ziran aktibidade gehixenak. Oiñ asko zabaldu da Debegesaren lana: *“3. adiñekuekin dihardugu lanian, turismuari garrantzixa emon detsagu, enpresetako barrikuntzeri jarraitzen detsegu, ez dittugu pymeak -enpresa txikiak eta ertaiñak- ahazten”*. Aurrekuarekin batera, *“herrixen reabilitaziñua eta jasangarrisuna beti dagoz gure ikuspuntuan”*. Arriskuerei aurre egitteko

legian eta kalidadiaren aldeko jarreretan emondako urratsekin harro dago Balbás-ek bultzatutako ekimenekin: *“Jendiaren kopurua hiru bidar haundixagua da oiñ hasieran baiño, aktibidadietan, berriz, bost bidar handitu dogu egitten doguna”*.



Garapen agentziak hainbat akordixo lotu dittu beste erakunde askorekin. Argazkixan, Rural Kutxako ordezkariarekin.

Eskualderako lorpenak aittatzerakuan, *“Malzaga-Urbinarekin”* geratzen da bera azpiegiteren arluan. *“Intangiblietan, balorien konzienziaziñua aittatuko neuke; eta, barrikuntzen artian, Deba Business Forum-a, sare industriala josteko balixo deskulako. Hórrek gauza guztiok udalak konbentziduz eraman dittugu aurrera”*.

Udalekin alkarlanian

2005ian martxan jarri eben Plan Estrategi-

Asier Serranoren**kolaborazioa****Katuen testamentua**


Goizalbaren lehen izpiek katuen gorpu zanpatua deskubritu didatenean oroitu dut Zorbasen sekretua: Haur hezkuntzako irakasle nengoela, txikiek bideo saioa zeukaten. Kaioaren eta hegal egiten erakutsi zion katuen istorioa jarri genien, Luis Sepulvedak idatzi zuen liburuaren marrazki bizidunetarako bertsioa.

Kasualitatez, idazle beraren beste liburu bat neukan irakurgai mesanotxean: Istorio marjinalak. Haurren bideoan, horren bizi eta leial azaltzen zen Zorbas katuen azken egunak idazten zituen Sepulvedak nire liburuan. Zorbas gazteak bizikidetzaren lezioa erakusten zien haurrei, Zorbas zaharrak heriotza onartzearen lezioa erakusten zigun helduoi.

Nire pentsamenduetan murgilduta nengoela, hara non hurbildu zitzaidan ume izutu bat. Bideoan agertzen ziren arratoiak ez zitzaizkiola gustatzen eta nire babesa eskatu zuen. Umea altzoan nuela, pantailan Zorbas hilaurren bat agertu zitzaidan. Sepulvedak kontatzen ez zuen sekretua aitortu zidan katuek: "Ederki aberastu da kastroia nire kontura... eta ni, idazten erretzen zituen tabakoen erruz, biriketako minbiziaz hil behar".

musika**Ken Zazpi****Ortzemugak begietan**


Gernikako bandaren disko berria itxaropenaz tindaturik dator, musikaren intentsitatea eta emozio sakonetan oinarriturik. Honako diskoa ere, Rafa Sardina teknikariak grabatu eta ekoiztua da (Stevie Wonder, Shakira, Paco de Lucía, Beyonce,... besteak beste grabatu dituena eta 25 Grammy Izendatze lortu dituena). Nahasketak berriro ere Rafa Sardinaren Los Angeles-eko "After hours" estudioan egin dituzte.

**Hainbat talde****Lovin Gaztea bilduma**


Azken 20 urteetako euskal maitasun kanturik bikainen bilduma. Bertan, alde batetik, Ken Zazpi, Berri Txarrak, Gatiibu, Su ta Gar, Betagarri, Sugan, Esne Beltza, Kerobia, The Uski's, Katamalo, Kauta, Gari, Gose... taldeen kanturik samurrenak aurkezten dira. Eta bestaldetik, Barricada, El Mentón de Fogarty eta We are standard taldeak ere bertsio bana eginaz agertzen dira (Barricada, Itoiz eta Hertzainak taldeak gogora ekarriz).

Jon Sarasua
Ertzeko zatiak

Gertakari txikien zatiak, esperientzien kontakizunak eta mini-gogoetak biltzen ditu esku artean duzun liburuak. Hego hemisferioan izandako lan-bidaetan, bost urtetan zehar hurbileko lankideentzat idatzitako testu laburren bilduma da. Brasilgo eta beste herrialde amerikar batzuetako argi-ilunak dira, elkarlanaren harian lurrik gabekoen mugimendukoekin, agintari batzuekin, indigenekin edo bideko lagunekin izandako igurtzietatik ekarriak.

**Miren Agur Meabe**
Zazpi orduak

Liburu hau irakurtzera bazatoz, ez ezazu egin paisaia bati urrunetik begiratzen dionaren moduan, horrela ez baituzu bereiziko bertako harri, lore edo zomorrorik. Barnera zaitez bidezidorretan, eta ibili patxadaz, paisaiak zer ematen dizun hartzeko prest. Liburu hau ez da ohiko begiekin irakurtzekoa: edozein paraje eguzkipean edo lanbro artean itxuraldatzen zaigun bezala, hau preziatzeko, magiaren kristala ipini behar duzu begietan.


**literatura**

Oñati, Donostia, Arrasate eta Bizkaiko musika taldeak gaur gauean Danbakan

Oñatiko El Trío Calavera, Oñati eta Donostiako taldeekin osatutako Rock Privado, Arrasateko Front Malabar eta Abadiñoeko Ymotek izango dira gaur gauean Danbaka edizioaren bigarren kontzertuan jardungo dutenak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30etan hasiko den musika jaialdian. Sarrera, betiko moduan, 5 eurotan izango da (3 euro Gazte Kutxarekin hartuz gero).

Runba, pop-rocka, 70eko hamarkadako rocka eta metal bortitza entzungo dira gaur gauean Elgetan: rumba musika ekarriko

dute aurten sortutako El Trio Calaverako oñatiarrek. Oñatiar eta donostiarrez osatutako Rock Privado musika taldeak, berriz, popa eta rocka uztartuko dituzte zuzenekoan; 2007az geroztik dabil Rock Privado taularik taula. 1970eko hamarkadako rock power estiloko musika taularatuko dute ingelesez, ohikoa dutenez, Front Malabar talde arrasatearrak-ekoek (2009). Eta, kontzertua amaitzeko, Bizkai aldetik, Abadiñoetik hain zuzen, datorren Ymotek taldeko partaideek metal musika interpretatuko dute, horiek ere ingelesez.




EL TRIO CALAVERA / Oñati

Apirilean elkartu ziren Luis (Poetas Muertos taldekoa), Ekaitz (Nos la suda taldekoa) eta Beñat (Ez! Taldekoa) gitarra hirukote bat sortzeko. Rumba euskalduna dela esaten diete baina letrak Luisenak direnez eta honek euskaraz ez dakienez, 'rumba merkea' izendatu zuten. Errealitateko egoerei eta maitasunari buruzko abestiak egiten dituzte, beti ere gitarra oinarriak eta gitarra bakarlarik errespetatuz.



ROCK PRIVADO / Oñati-SS

German Uribe-Etxebarria (gitarra eta ahotsa), Adriana Besne (ahotsa), Juan Ignacio Manso (gitarra), Iñigo Arozena (teklatura), Victor Garcia (baxua) eta Andoni Regueiro (bateria) dira Rock Privado taldeko kideak. Pop-Rock musika egiten dute. Bi disko dituzte kalean: 2008 hasieran kaleratu zuten lehena, 'En todo este tiempo'; lehen diskoarekin, Madrilgo Audiciones 2008 lehiaketan final aurrekora heldu ziren.



FRONT MALABAR / Arrasate

Rock Power hirukotea 2009an eratu zen. Borja Sabas bilbotarra (gitarra eta ahotsa), Bachelors eta Porcelanea taldeetako partaide ohia; Josema Cabezas arrasatearra (bateria eta koruak), Malaña, Kumulo eta Carlos el Sudio taldeetako kide ohia; eta Aitor Angulo (baxua eta koruak), Mr. Danger taldeko kide ohia dira taldekideak. Iurretako lokal bat alokatu eta lanean hasi ziren. Kanta guztiak ingelesezkoak dira.



YMOTEK / Abadiño

Abadiñoeko metal taldea, 2006an sortua. Taldeak aldateta batzuk izan dituen arren, egungo partaideak hauek dira: David Villarubia 'Villa' (ahotsa), Roberto Moisen 'Rober' (gitarra), Javier Villar 'Javivi' (bateria), Asier Otaduy 'Zana' (baxua) eta Ivan Esteban 'Randall' (gitarra). Euren bigarren kontzertuan 2006ko Aldapa maketa lehiaketa irabazi zuten (Berrizen, Bizkaian). 2008an 'Apathy' izeneko lehen Ep-a kaleratu zuten.

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional talata
zure zerbitzura



Hortz, konplexu eta
kompletu harrarain
Hundelako kontrol...

PREBENTIBARREK: Tel. 943 20 18 51

m bista eder



Inbarrak
gazte egiten garu

implante eta
Hortz-Estetikan
aditua

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

OSASUN



GASTESI

Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



IRAZABAL
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behea - Tel.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Hemen zure tokia
izan nahi baduzu
deitu 943-206776
telefono zenbakira



GGDA

Fisioterapia




ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
T.F.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI OSTEOPATIA
901 kolegiatu zbkia. NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA
Juan Gisasola, 14
Telefona: 943 12 70 78

Okulistak



JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82



Clínica Oftalmológica RECALDE
Oftalmología Clínica
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

HELBIDE BERRIA
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Ereiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behe

Tel. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Haritz Garro lider Gipuzkoako xake txapelketan

EIBARKO XAKELARIA BERDINDUTA DAGO LIDERGOAN Astigarragako Mundaroko Asier Urretabizkaiarekin eta bien arteko lehia izango da asteburuan, Azkoitia jokatzeko diharduen txapelketaren 4. jardunaldian. Julen Garrok Azko-

tiko Anaitasuna Kakuteko Hector Sánchezen aurka jokatuko du, Jon Aranak Añorgako Mikel Zubiaren kontra eta Edu Olabek Errenteriako Beraun Berauko Aitor Goñiren aurrean. Argazkian, Haritz Garro eta Mikel Alvaradoren arteko partida.




Pablo Berasaluze.

Eibarrek bihar jokatuko du, 16.00etan

IRUNGO GAL ZELAIAN 2. A MAILARA IGOTZEKO HAUTAGAI BIREN ARTEKO LEHIA izango da bihar arratsaldean. Partidua ETB-1ek emango du zuzenean, hirugarrena jarraian Manixen taldearentzat. Orain arte kanpoan jokatutako partidu guztiak irabazi

ditu Eibarrek, marka berria ezarri taldearen historian; aurkaria ez da errazena izango (iaz 2. A mailan jokatu zuen), baina eibartarrek seguruago dabilta lpuatuat kanpo. Zapatuan Athletic-ekin galdu eta gero, sei puntutik hiru puntura jaitsi da bigarrenari kentzen dioten alde.



Beste hiru buruz-buruko domekan Astelenan

BARRIOLA ETA RETEGI BIREN ARTEKO NORGEHIA-GOKA IZANGO DA Astelenan jokatuko den domekako jaialdiko partidu nagusia. Horko irabazlea azken faseko lau onenen arteko ligaxkan sartuko da. Bes-

te partidu bietan, 2. mailako txapelketako neurketak izango dira: lehenengoan, Mendizabalek eta Merino II.ak jardungo dute; eta, azkenekoan, Apezetxeak eta Rico IV.ak. Pelota aukeraketa atzo eguerdian egin zuten.



Behobia-Donostiarako autobusa

IZEN HANDIKO MARATOI-ERDIAN PARTE HARTUKO DUTEN ATLETENTZAKO AUTOBUSA irtengo da Eibartik probaren egun berean, hau da, azaroaren 14an. Horko atleta batzuk antolatuta, autobusa Ego-Gainetik irtengo da 08.15-etan eta txartelak Askasibar kiroldean erosi daitezke, 10 eurotan.

Ohikoa denez, aurten ere inoiz baino parte-hatzaile gehiago hartuko ditu Behobia-Donostiak eta, 20.000 atletekin batera, patinatzaileak ere izango dira lehenengo aldiz: 125 lagun lehenengo edizioan. Horiek ordu eta erdian egin beharko dute ibilbidea, lehenengoek 35 minututan helmugara-zea espero bada ere.

Arratek hil edo biziko partidua du gaur 21.00etan

HORRELA HARTU BEHARKO DA TOLEDAREN AURKAKO GAURKO PARTIDUA. Talde biak ixten dute sailkapena: eibartarrak 3 punturekin, punturik gabe oraindik Gaztela-Mantxakoak. Julian Ruizen mutilen garaipenak sailkapenean aurrera egitea ekarriko luke, baina porrota larria izango litzateke, ia talde biak kondenatuko bailituzke. Ipurua kiroldegian jokatuko den partidua 21.00-etan hasiko da.

8 jubenil eta lau kadete

Euskadiko selekzioarekin

Azaroaren 1ean Euskadiko selekzioekin jardun zuten lane-



an eibartarren harrobiko hamabi jokalarik: eurretatik zortzi Unibertsitate Laboralean egon ziren eta lau kadeteak Gasteizen. Eibarren Arrateko honakoak izan ziren: Eneko Garetxana, Martin Iriarte, Jon Mikel Lejardi eta Aitor Telletxea eibartarrek batera, Mikel Alzaga (Usurbil), Jon Azkue (Orio), Sergio Fernández (Basauri) eta Aitor Iburguren (Andoain).

Eibartarrak-eko talde biak aurrez-aurre

ERREGIONAL 1- MAILAKO 4. MULTZOAN DIHARDUTEN GURE HERRIKO LAU TALDEAK sailkapeneko erdialdean daude. Horrela, Eibartarrak 3.a da (14 punturekin), Gazteak 4.a (11 puntu), Eibartarrak B 5.a (8) eta Urki 6.a (7). Azken jardunaldian ez zen euren arteko partidurik izan eta, Unben jokatutako bietan, eibartarrak izan ziren nagusi: Gazteak-ek 4-1 gainditu zuen Aretxabaleta eta Eibartarrak B-k 4-0 Soraluze B. Kanpoan, Urkik hiruna berdindu zuen Soraluzen, liderraren zelaietan, eta Eibartarrak A 1-3 nagusitu zen Bergaran.

213 gain dituzte Pirinioek 3.000 metrotik gora heltzen direnak. Badira urte batzuk, 11 zehazki, Eibarko Klub Deportiboaren 75. urteurrena zela-eta, talde horretako Mendi Batzordekoek urte hartan gain guztietara iristea lortu zutena; baina, orduko hartan, urte guztia izan zuten eta, baita, bazkideen artean banatutako lana.

Fernando Errekalde eibartarrak Pirinioetako 3.000 guztiak egin ditu

Oraingoan erronka estua goa hartu dute euren gain Errekaldek, Marta Alejandre bere emazteak eta Juan Carlos Jiménezek. Irailaren 1ean ekin zioten proiektua gauzatzeari eta urrian 22an amaitu. Guztira, 64 kilometrotik gorako desnibela gaudituz egun horietan (64.666 metro). 341 ordu eta 37 minutu bertan emanda. 52 egun behar izan ditu hirukoteak proiektua amaitzeko, euretatik 40 lanean jardunez, gogor; besteetan, atsedean hartu eta pilak kargatu dituzte.

Badira sei urte Errekalde Villanua -Bellanuga, aragoieraz-Huescako iparraldean kokatutako herrian bizi dela eta han dihardu lanean goi-mendiko eta sakanetako gidari moduan. Iaztik Guiar-T mendi-gidarien bere enpresan dihardu lanean. Erronkari aurre egitea buruan zuten eibartarrak aspalditik, baina oraingoan ikusi du une egokia eta, horretarako, lagun egokian aukeratu ditu: Marta Alejandre Aragoiko lehenengo emakumea izan da 8.000ko bat egiten

(Dhaulagiri egin zuen 2008an eta iaz Gasherbrum I) eta Juan Carlos Jiménez "Curro" goimendiko teknikariak Himalaiara egindako hainbat espedizioetan hartu izan du parte.

Fernando Errekaldek, bestalde, Alpeak, Mendilerro Zuria, Tienshan, Alaska eta Himalaia ezagutzen baditu ere, bazuen etxetik gertu, oso eskura, zaila egitekoa baina guztiz beteko zuen erronka polita. Pica de Estat-en, Katalunian, egin zuten lehenengo gaina eta Robiñeran amaitu. Beti-beti ere ez, baina eguraldia nahiko alde izan dute eta lagundu diete mendilerroa zeharkatzen; egun gaiztoak atsedean hartzeko aprobetxatu dituzte.

Zailtasunak ere izan ziren hila-bete eta erdi luze horretan. Gran Vignemale izan zuten suzko frogara, Gaube bailaratik ikusita Pirinioetako irudi ezin ikusgarriagoa eskaintzen duen toki horretan galdu egin baitziren, "hainbat orratz errepikatzeaz gain. Etsipen uneak izan ziren eta, ahalegin fisikoak baino, pisu handi-



Klub Deportiboak bere 75. urteurrenean urte osoan egindakoa egin dute oraingoan hiru mendizaleek hilabete eta erdiaren bueltan.




Hiru mendizaleak, Fernandoren gurasoekin, zeharkaldiaren amaiera ospatzen.

goa izan zuen hor arlo psikologikoak". Horko zalantzekin proiektu-

tua bertan behera lagatzea pasatu zitzaizkien burutik, baina aurre egitea lortu zuten.

Hirukoteak "txango berezia" 6-7 jardunaldiko blokeetan banatu zuen, egun horietan lan eginez eta, jarraian, egun bateko atsedena hartuz. Irailaren 6rako Benasquen zeuden, hortik "Besiberrien zeharkaldia nabarmenduz erakargarrien moduan". Irailaren 14rako 50 mendi-gain zituzten eginak (3.000ak guztiak, jakina!), tartean bigarren blokeko "Salenques-Tempestades tontorretan inoiz baino gehiago gozatuz". Irailaren 18an hasi zuten 3. blokea: Perdigue-ro, Posets eta Bchimala, hiru eremu horietan banatuta. Hilaren 30erako ibilaldi osoaren bi herenak zituzten eginak, 135 mendi-gain. Urriaren 5etik aurrera, egun eguzkitsuak izan zituzten lagun, 10ean tanta hotza heldu zitzaizen arte: azken horrek arazoak sortu zitzaizkien Toumuseko zirkoa egiteko. Eta urriaren 17rako 195 hiru milako zituzten eginda: bakarrik Ordesa eta Robiñera falta zitzaizkien, 18 guztira. Eta Cilindro, Dedo, Perdido eta Escaleras-eko orratza eginda, Robiñera gozotsuan ziren!






Martitzeneko aurkezpeneko irudia. / SILVIA HERNANDEZ

Euskararen Eguna aurten kantuz ospatuko da

MARTITZEN GOIZEAN AURRERATU ZIGUTEN ABENDUAREN 3AN OSPATUKO DEN Euskararen Nazioarteko Egunaren egitaraua. Udalak, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin eta Kutxarekin batera, herritarren parte-hartzea helburu duen ekitaldia prestatzen dihardu. M^a José Telleria Euskara-Kultura zinegotziak azaldu duenez, *"iaz Juan San Martinen 'Eztenkadak' eta 'Zirikadak' liburuen irakurketa-saioa egin genuen eta arrakasta handia izan zuen, oso ekitaldi herrikoa izan zen. Hala ere, ez genuen errepikatu nahi eta, herritarren aldetik beste eskaera batzuk jaso ditugunez, horiei erantzunez oso ezagunak diren 25 kantu berreskuratuko ditugu, herriko taldeetako ordezkariak, animatzen diren beste herritarrekin batera egun horretan abestu ditzaten"*.

Horretarako, Kutxak kantu-liburuxka emango du argitara. Goizean, 11.30etan Untzaga plazan DBH eta batxilergoko ikasleek jardungo dute kantuan eta Lehen Hezkuntzakoek, berriz, arratsaldean. 18.30etatik aurrera herriko abesbatzek eta bestelako elkarte eta taldeek hartuko diete erreleboa, Elena Martín Musika Eskolako zuzendariaren aginduetara Untzagan abesteko. Toribio Etxebarrian kalejira egitea ere aurreikusitua dute. Amaieran Eibar Merkataritza Gune Irekiak piskolabisa eskainiko die parte hartzen duten guztiak. Abestiak zeintzuk diren eta beste argibide batzuk aurrerago ematen joango dira antolatzaileak, baina egitasmoaren berri lehenbailehen eman nahi izan dute, *"herritarrak jakinaren ganean egon eta parte hartzera animatu daitezten"*.



Herriko musikariak Orozkoren omenez

ATZERRIKO ABESBATZEN EMALDIEI AGUR ESAN DIEGU ASTE HONETAN bertan, Tolosako lehiaketan sari bi eskuratu dituen Hungariako haur abesbatzaren emaldiarekin, baina Eibarko Musikaldiaren aurtengo edizioan garrantzi berezia duen kontzertuarekin gozatzeko aukera paregabea daukagu gaur bertan, 20.30etan Coliseoan, José Ramón Orozko zenaren omenezko kontzertuan. Pedro Palacín ibili da ordebete inguruko iraupe-na izango duen kontzertua antolatzen eta, Orozkoren ibilbide musikala gogoan, herriko bakarlari eta taldeak izango dira protagonista gaur iluntzean.

Jende guztiarentzat erakargarria izan nahi duen programarekin hasteko, Goruntz abesbatzak hiru abesti eskainiko ditu: "Santa Lucía" (napolitar herrikoa, "a capella"), "Barcarola" (Cuentos de Hoffman, Offenbach, Alvaro Garrido pianoan) eta "Mañanitas Duo" (Lorea Ojanguren eta Conchi, abesbatzarekin eta Alvaro Garrido pianoan). Jabier Bastidak, berriz, "Mendi Mendiyan" eskainiko du, Yasmin Saoud pianoan lagunduta eta Armando de Benitok ere Saouden pianoaren laguntza izango du "La Romanza de Rufo" abestian. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako abesbatzak, Guridiren "Cancio-



nes infantiles" abestuko du, Garridok pianoan lagunduta. Ondoren, Sostoa abesbatzak "Las Golondrinas" (J. M. Usandizaga) eta "Vals de Fausto" Gounod kantatuko ditu. Eta, kontzertua biribiltzeko, Pedro Palacín-ek zuzentzen duen Andrés de Egiduren orkestrak "La italiana en Argel" (obertura, G. Rossini), "La canción de Paloma" ("El barberillo de Lavapiés" lanekoa, Pedro Palacín-en moldaketekin, Lorea Ojanguren bakarlariekin) eta "Dúo de tiples" ("Los sobrinos del capitán Grant" lanekoa, M. Fernández Caballero, Pedro Palacín-en moldaketekin eta Arrate Iñarrairegi eta Edurne Laskurain bakarlariekin). Horrez gain, sorpresaren batekin amaituko dute emanaldia. Sarrerek 5 euro balio dute eta lehiatilan bertan egongo dira salgai. Bestalde, Eibarko Musikaldia ez da gaurko saioarekin amaituko: azaroaren 13an Esteban Landart-en organo kontzertua hartuko du San Andres elizak, 20.00etatik aurrera.



Perretxikotan batutakoa sailkatze lanak Deporreko lokaletan.

/ MAIALEN BELAUSTEGI

Perretxiko sorta ederra

KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEKOEN ESKUTIK GARATU ZIREN JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK aurreko asteburuan. Perretxikoen inguruan antolatutako jarduerak XIII. edizioa bete du aurten eta, aurreko edizioen bideari jarraituta, ikastetxeetan izena eman zuten ikasleekin mendira irteera egin zuten zapatu goizean. Ila 100 haurrek hartu zuten parte perretxikotara joateko irteeran: talde bi osatuta, batzuk Araba aldean ibili ziren eta beste batzuk, berriz, Nafarroan. Arratsaldean, Aranzadi zientzia elkartekoekin batera, Klub Deportiboan bertan garbitu eta sailkatu zituzten perretxikoak, hurrengo egunean jende aurrean erakusteko: 176 perretxiko mota ezberdin bildu zituzten, beste herri batzuetan antolatutako antzerako irteeretan baino askoz gehiago, Aranzadikoek azaldukoari jarraituta. Horiek guztiak domeka goizean ikusgai egon ziren Toribio Etxebarria kalean eta, perretxikoak ikustera joandako askok ez zuten galdu nahi izan Deporrekoek perretxikoak jateko eskaini zuten aukera.

Kontu kontari... badator Kontalaria!

KONTALARIA KAMIOI BEREZIA EIBARREN IZANGO DA BIHAR ZAPATUA, 16.00etatik 20.00-etara Untzagan. Fran Lasuen musikariak zuzentzen duen proiektua aurreko astean aurkeztu zuten Portalean Lasuenek berak eta M^a Jose Telleria Euskara zinegotziak. Eibarren ez ezik, beste 19 herritan ere ibilbidea egiten dihardu Kontalaria proiektuko kamioi berezia, "euskeraren erabilera bultzatzeko" asmoari jarraituta.

Nahi duenak ikus-entzunezko ekipoarekin moldatutako kamioian sartu eta ipuina kontatzeko aukera izango du: horretarako, herririk herri ibili den kamioi berezian sartzen denari aurreko



Fran Lasuen eibartarra Kontalaria! proiektua aurkeztu zutenean.

parte-hartzaileak kontatutako istorioa erakutsiko zaio, horrela kontakizunarekin jarrai dezan. Azkenik, ikus-entzunezko teknikariak, alde zuzenetik ezarritako irizpideei jarraituta, amaieran ipuina sortuko du. Ekimenaren *arduradunen berbetan*, "haur nahiz gazte, heldu nahiz adineko, guztiek har dezakete parte". Eta hori da, hain zuzen ere, bila-

tzen dutena: herritarren parte-hartzea ahalik eta zabalena izatea. Ipuin eta istorio guztiak www.kontalaria.com izeneko web orrian ikusgai ipiniko dituzte eta batzuk Euskal Irrati Telebistako kateetan emitituko dira. Ibilbide guztia amaitzean edizio lana egingo da, ipuin kolektiboa sortzeko. Abenduan amaituko da proiektua.

Goi mailako blues doinuak Coliseoan

ZAPATUAN, 20.00-ETATIK AURRERA, COLISEO ANTZOKIAK BLUES KONTZERTUA HARTUKO DU. Gaztelupeko Hotsak antolatuta, eta

Errabal jazz-blues jaialdi ibiltariari jarraituz, Red House bikotea izango da taula gainean: Jeff Espinoza eta Francisco Simón "Chihuahua Boogie" azken lana aurkezteko kontzertua eskainiko dute. Flying Gallardos taldeko kide zirela elkar ezagutu zuten musikari biek, jazz-blues munduan pisu handiko beste musikari batzuren laguntza izango dute. Besteak beste Blues Brothers talde mitikoaren sortzaile eta saxofoi jotzaile Lou Marini, Blasters eta Fabulous Thunderbirds taldeetan jardundako Gene Taylor, Ramón Arroyo (Los Secretos), Gaby Jojeix, Carlos Sanchez eta Manuel Bagües. Sarrerak 10 euro balio du.




Jose Luis Kortarekin Illunabarrian

ETB-2K AZKEN URTEETAN ESKAINTZEN DIHARDUEN "EL CONQUISTADOR DEL FIN DEL MUNDO" SAIOAREN INGURUKO hitzaldi-mahainguru



ria antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek azaroaren 17rako (19.00etan, elkartearen egoitzan, Urkizu 11 solairuarekin). Urko Aristik aurkeztuta, José Luis Korta ezaguna izango da mahai-ingururako gonbidatu berezia. Korta, Juanito Oiarzabalekin batera, telebistako saio horretan lehiatzen dauden taldeetako lider bezala parte hartzen dihardu azken urteetan eta Patagoniako bere esperientziaren berri bere ahotik entzuteko aukera eskainiko digu ekitaldiak. Bestalde, Urko Aristi kazetariak aurre-



tik ere hartu izan du parte horrelako solasaldia gidatzen, Eibarren bertan, hain zuzen ere Basetxea lehiaketaren ingurukoan.

laburrak

taldekako erakusketa Topalekuan

"Erretratoak" izenburuko erakusketa zabalduko dute gaur arratsaldean, Topalekuan. Taldekako erakusketa izango da eta Haritz Guisasaola, Azpilikueta, Eli Eguren, Alberto Egurrola, Nerea Lazpita, Iñaki Intxausti, Aitor Cano eta Maite Arriagaren lanak izango dira ikusgai, ohiko ordutegian (astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara). Azaroaren 14ra arte egongo da ikusgai.

Orquesta Mondragón

San Andres jaien bueltan, trena hartu eta gurean geldialdia egingo dute La Orquesta Mondragón taldeko kideek azaroaren 27an. Javier Gurrutxaga buru duen talde donostiarak "El maquinista de la General" lan berria aurkeztuko du Astelena frontoian. Sarrerak alde zuzenetik erosteko moduan ipini dituzte, 20 eurotan hainbat tabernatan eta bestela ere, frontoiko lehiatilan 24 eurotan egongo dira salgai.

Ikastolako bazkaria

Juan Antonio Mogel ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldien artean azkena abenduaren 18an egingo den bazkaria izango da. Armeria Eskolan 14.30etan hasiko den bazkarian ikastolako guraso, guraso ohi, ikasle ohi, irakasle, irakasle ohi eta bestelako langileak (sukaldariak, garbitzaileak...) elkartzea nahi duten antolatzaileek. Joan nahi duenak abenduaren 3rako 30 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxan 3035 0023 94 0231142214 kontu zenbakian (ez ahaztu izena jartzea).

Landa-eremuetara Informazio eta Komunikazio Teknologiak gerturatzen

Debemen Debabarrenako Landa Garapen Elkarteak landa-eremuetara Informazio eta Komunikazio Teknologiak gerturatzeko proiektuan beharrean dihardu, baina proiektuak aurrera egin dezan herritarren laguntza behar du.

Egitasmoa Europar Batasuneko Leader Ekimena eta 2007-2013ko Euskadiko Landa-Eremuetako Garapen Eramangarriaren Programaren eskutik dator eta helburu nagusia landa-eremuak Informazio Gizartearekin bat egiteko laguntza eskaintzea da, "gizartearen garapen bateratu bat lortzeko asmoz. Landa auzoetara Informazio eta Komunikazio Teknologiak gerturatu nahi ditugu "Brecha digital" delakoaren eraginak saihestuz".

Bide horri ekiteko, IKT Dinamizatzailearen postua sortu dute Mendinet eta Landa Garapen Elkarteek. Bere zeregin nagusia teknologia berrien inguruko perzeptzioa leuntzea da, egunero-kotasunean normaltasunez erabiltzeko aukera bideratuz. Debemenetik helarazi diguten oharrean proiektuaren inguruko argibideak eta bestelako informazio osagarria horrela jaso dituzte.


IKT Dinamizatzaileon helburu nagusiak bertatik-bertarako diagnostikoa egin eta ekimen eta edukien zerrenda osatzea dira. Lehenengoari dagokionez, "ikerketak sakona eta baliabideen diagnostikoa egiten ari gara, IK-

Tak eskualdean benetan duten ezarpena bertatik-bertara ezagutu behar baitugu". Horretarako, besteak beste azterketak, inkestak eta elkarrizketak egiten dihardute herritar zein eragileekin. Diagnostikoa egin eta gero, "eskualdeko benetako beharrak ezaguturik, dinamizazio egitasmoak diseinatuko ditugu. Aurkitutako arazoak modu zuzenean konpontzen ahalegindu, asmoa landa-eremuko herritarrek IKTe-tara gerturatzeko baita, euren garapenarako ezinbesteko tresnak direla erakusteko".

Dinamizazio ekimenak

Lehenik eta behin Debabarrenean telefono mugikorra eta internet banda zabalaren seinaleen kalitatea aztertu eta gabezien mapa eratuko dute. Ondoren, eskualdean dauden seinale gabezien mapa (Itzal digitaleren mapa) eratu eta gero, ahal den neurrian arazoak konpontzen ahaleginduko dira.

Bigarren ekimen modura, IK-Tekin zerikusia duten jarduera hezgarriak burutu nahi dituzte. Horrez gain, IKTen sustapena eta informazio ekimenak eskualdeko landa eremuetan zabaldu-



ko dira (alfabetizazio eta gaitasun teknologikoari buruzko ikastaroak, mintegi praktikoak, informazio jardunaldiak, lehiaketak, elkartearen konexioa bultzatzea, gurasoen IKTenganako sentsibilizazioa erraztea...). Hirugarrenik, "landa-eremutako langile autonomo, enpresa txiki eta elkartearen konexioa sustatzen eta errazten" arituko dira eta, besteak beste administrazio ezberdinek konexiorako eskaintzen dituzten diru-laguntzen inguruko informazioa luzatuko dute (Spri, Leader Ekimena, Plan New...).

Eta laugarren ekimena eskualdeko udalerrien webguneen garapena eta promozioa bultzatzea litzateke. Horrez gain, administrazio elektronikoak eskaintzen dituen aukerak Debabarrenean azalduko dituzte. Dinamizazio Rural edo IKT Dinamizatzaileon egitasmoaren babesle nagusiak Europar Batasun-

na, Mendinet, Landa Garapen Elkarteak eta Eusko Jaurlaritza dira. Hala ere, Debemenetik azpimarratzen dutenaren arabera, "proiektu honek ez du inolako baliorik landa-eremuko udalerriri eta herritarren babesarik gabe. Debabarrenean "brecha digitala" delakoaren eragina txikitu nahi badugu, udalerrien eta herritarren parte-hartze eta inplikazioa behar-beharrezkoa dugu. Landa-eremuko biztanleok jakin behar dugu gure gizartearen garapen osoa lortu nahi badugu, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKTak) hori lortzeko ezinbesteko erramintak direla". Gaiarekin interesa baduzue, Debemen elkartera jo dezakezue, gagirrego@gmail.com heldidera mezua idatzita edo 943744067 telefono zenbakira deituta, eta IKT dinamizatzailearekin, Garbiñe Agirregomzekortarekin harremanetan ipini.

Etxola jatetxea
 etxolajatetxea@hotmail.com
 Erreserbak: 943-207019
 Txirio kale, 1

jatetxea

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
 Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Radio Eibar
 CADENA
SER
 104.0 FM


Iradi
 LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak


San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARTIN Kortina Mendoza, bixar urtia egingo dozulako. Familixa guztiaren partez.




Zorionak, ARIANE Muñóz Luque, gaur urtebete egitten dozu-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.




Zorionak, GANIX, hillaren 9xan lau urte beteko dozuzelako. Aitatxo eta amatxoren partez




Ongi etorri irailaren 26xan jaixotako MIKEL Lapeyra Ibarrari. Bere guraso eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, LOREA gure pitxintxuari, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu bat zure ahizpa Jone eta famelixaren partez.



Zorionak, MARTIN, bixar urtebete egingo dozulako. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MARRUBI eta GEREZI, zortzi eta sei urte betetzen dozuez-eta. Segi hain txintxo eta jator, bale? Patxo eta besarkada mordia zuentzat!!!



Zorionak, LUCAS García, hillaren 2xan urte bi bete zenduaz-eta. Etxekuen partez

JAOTAKOAK

- Iyao Errghay. 2010-X-20.
- Iraia Lafuente Arrizabalaga. 2010-X-23.
- Ariane Varela Jiménez. 2010-X-24.
- Nerea Aizpuru Boyero. 2010-X-26.
- Nerea Carrasco Morán. 2010-X-27.
- Ander Martín Buendía. 2010-X-31.

HILDAKOAK

- Felipe Alonso Domínguez. 91 urte. 2010-X-26.
- Jose Antonio Garate Muñóz. 71 urte. 2010-X-27.
- Eugenio Etxebarria Axpe. 88 urte. 2010-X-28.
- Pako Aranburu Zubeldia. 75 urte. 2010-X-28.
- Flora Kruzelegi Trokaola. 78 urte. 2010-X-29.
- Anastasio Ogiza Badaia. 92 urte. 2010-X-31.
- Imanol Ortíz de Zarate Arrinda. 89 urte. 2010-XI-3.

zinea Coliseoan

5ean: 22.30
6an: 19.45/22.30
7an: 17.00/19.30
8an: 20.30

"Mis tardes con..."

Zuzendaria: Jean Becker
Aktoreak: Sophie Guillemin, Gérard Depardieu, Gisèle Casadesus, Maurane




Parke batean egiten dute topo 50 urtetik gorakoa eta ia analfabetoa den Germainek eta irakurtzea gustoko duen ia ehun urteko Marguerittek. Azken hau ikusmena galtzen joango da eta Germaine ahaleginduko da irakurtzen ikasten, ezingo duenerako.

5ean: 22.30
6an: 19.45/22.30
7an: 17.00/19.30
8an: 20.30

"Didi Hollywood"

Zuzendaria: Bigas Luna
Aktoreak: Michael Cooper, Peter Coyote, Flora Mart´nez, Elsa Pataky



Diana espainiarra aktorea izan nahi du eta, kamarera lana lagata, Maria laguna agurtu eta Miamira joango da. Baina han gauzak ez zaizkio ondo joango eta jateke bateko sukaldean egin beharko du lan. Nora abeslaria eta Robert zinea zuzendaria ezagutu arte

6an: 22.30
7an: 19.30
8an: 20.30

"Los ojos de Julia"

Zuzendaria: Guille Morales
Aktoreak: Belen Rueda, Lluís Homar, Clara Segura, Julia Gutiérrez Caba




Julia bere ahizpa itsuaren misterioz betetako suizidioa hasiko da aztertzen. Bera ere ikusmena apurka-apurka galtzen joango da, eta bere ahizpak bizi izan zituen izu-ikara berberei egin beharko die aurre. Gaixotasun eta bide bera izango ditu.

3D

7an: 19.30

"Como perros y gatos"

Zuzendaria: Brad Peyton
Pertsonaiak: Diggs, Lou, Sam, Peek, Butch, Shane, Kitty Galore, Catherine



Katu eta txakurren arteko betidanako borrokan, katu batek gurutzatu behar ez zuen marra gurutzatu du. Kitty Galore Miau katu espioien erakundeko agenteak plan gaiztoa ipiniko du martxan txakurrak garaitzeko eta katuak dominatzeko.

horoskopoa

ARIES

Ez kopiatu inoren janzkera: ez duzu zuk emoten! Ez zaude eroso eta igarri egiten zaizu. Zu zeu izanda, hobeto joango zaizu dena.

TAURUS

Aspaldi konpondu beharreko zerbaitekin amaituko duzu. Bakea hartuko duzu, nahiz eta egun gogor batzuk pasatu beharko dituzun.

GEMINI

Tontokeriengatik haserretzea nekeza da. Behingoz, laga alde batera harropuzkeriak eta ahaztu egizu, ez du merezi-eta.

CANCER

Noiz onartuko duzu gustatzen zaizula? Berarekin egiten dituzun barreak, begiratzeko modua... Begibistakoa dela! Animo!

LEO

Arrakastaren astea izango da. Egiten duzun guztian zortea izango duzu. Ez laga aurreragorako orain egin dezakezuna eta aprobetxatu.

VIRGO

Etxean txapuzak egiten hasi zara, baina badakizu brikolaia ez dela zurea. Egiozu kasu amari eta laga profesionaleri biharra egiten.

LIBRA

Honezkero Gabonekin pentsatzen? Ez hasi orain turroiak jaten, sasoiari sasoikoa! Izango duzu astia horretarako aurrerago.

SCORPIUS

Aurreko asteburuan ez zenuen ia lorik egin eta aste osoa behar izan duzu erreuperatzeko. Asteburu honetan, hobe lasaia gozabiltza.

SAGITTARIUS

Pertsona urduria zara, baina kirioei aurre egiten ikasi duzu eta kementsu zabilta oztopoak gainditzen. Segi horrela! Merezi du-eta!

CAPRICORNIUS

Gauzak hasi eta amaitu behar direla ez dakizu? Mila saltsatan zabilta, baina amaitu noiz? Beste ezertan hasi aurretik, duzuna egin.

AQUARIUS

Azken aldian txarto egiten duzu lo, zerbaitek kezkatzen zaituelako. Lasai hartu, aste honetan konponbidea topatuko duzu-eta.

PISCIS

Orain arte ez zara esaten ausartu, baina ezingo duzu luzaroen ezkutatu. Esaten duzunean, lasaia gozabiltza. Egin aproba!

Barixakua 5**MEMORIAREN AUTOBUSA**

12.00/19.00.- Izarren Argia Memoriaren Autobusa. Txaltxa Zelaian.

MUSIKALDIA

20.30.- Jose Ramon Orozkori omenaldia. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

22.00.- Josu kantautorearen kontzertua. Tallarra gaztetxean.

DANBAKA

22.30.- El Trio Calavera (Oñati), Rockn Privado (Oñati-Donostia), Front Malabar (Arrasate) eta Ymotek (Abadiño). Espaloia Kafe Antzokian.

Zapatua 6**KONTALARIA**

16.00/20.00.- Kontalaria! kontakizuna osatzen joateko kamioi ibiltaria. Untzagan.

ERROTA GAZTELEKUA

17.00.- Kautxozko eskulanak (agenda, brotzeak, lorak...). Errota gaztelekuan.

KONTZERTUA

20.00.- Red House Band blues kontzertua (Jeff Espinoza eta Francisco Simón). Sarrerak: 10 euro. Coliseoan.

lehiaketak**– XXXIII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa.**

Noiz: Azaroak 21. Izen-ematea 09.00etatik 11.00etara. Portalean.

– San Andres Pintxo Lehiaketa.

Noiz: Azaroak 25. Informazioa eta izen-ematea: Arrate Kultur Elkartearen (bulegoa zabalik eguenetan 16.15etan eta barixakuetan 16.30etatik 19.00etara).

– XVIII. Bakailao Txapelketa San Andres Saria.

Noiz: Azaroak 28, 11.30etan. Informazioa eta izen-ematea: Azaroak 12ra arte, Pegoran.

Domeka 7**ERROTA GAZTELEKUA**

17.00.- Kautxozko eskulanak (agenda, brotzeak, lorak...). Errota gaztelekuan.

PELIKULA

18.30.- 'Persépolis' pelikulararen emanaldia. Tallarra gaztetxean.

Astlehena 8**SENDABELARREN FOROA**

16.00.- "Ginkgo Biloba" arbolari buruzko solasaldia. Portalean.

IKASTAROA

17.00.- Coaching ikastaroa emakumeentzat. Portalean (ikastaro gelan).

HITZALDIA

19.00.- "Secretos del cerebro". Hizlaria: Gurutz Linazasoro neurologoa. Portalean.

ikastaroak**– Giza Irudia, modelo bizidunarekin.**

Noiz: Martitzen eta eguenetan, 09.30etatik 11.30etara eta astelehenetan 19.00etatik 21.00etara.

Non: Arrate Kultur Elkartearen, Maite Arriagarekin. Informazioa eta matrikulazioa (urte osoan zabalik): 622053933 edo 943821353 telefonoan (mezua laga).

– Biodantza (emakumeentzat).

Noiz: Eguenetan, 14.45etatik 16.30etara, Portalean (dantza gelan). Izen-ematea eta informazioa: 626661292 telefono zenbakian (Mentxu).

Martitzena 9**IKASTEN**

10.00.- "Inteligencia emocional", Adindu-ren eskutik. Armeria Eskolan.

SENDABELARREN FOROA

15.30.- Fruitarbolak inausten ikasteko ikastaroa. Portalean.

HITZALDIA

19.00.- "Krisi etikoa gainditzeko oinarrizko printzipioak", Jose Maria Setienaren eskutik. Portalean.

Eguena 11**IKASTEN**

10.00.- "Seis renombrados personajes vascos", Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

ZINE KLUBA

17.30/21.00.- "Ajami" (Zuz: Scandar Copti). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuzerako entsegua. San Andres elizako lokalean.



erakusketak

- Azaroaren 14ra arte
"INPRESIOAK" (euskal artisten obra grafikoa).
 Luis Candaudap, Marta Cárdenas, Alfonso Gortazar, Gonzalo Jauregi, Juan Mieg, Esperanza Zabala, Jose Antonio Azpilikueta, Damaris Pan, Amagoia Ruiz, Jorge García, Fernando de Vicente, Imanol Larrinaga eta Imanol Marrodán. *Portalean.*
- Azaroaren 21era arte
INDALEZIO OJANGUREN XXIII. Argazki Lehiaketan saritutako argazki erakusketa. *Portalean.*
- Azaroaren 30era arte
CARLES VERDÚ I PRATS en "Vietnam del Norte" argazki-erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- AGRUPACIÓN FOTOGRÁFICA TALLERS D'ARTS I OFICIS DE BERGA P25**-ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- HERRI KIROLLEN**-ren inguruko erakusketa. *El Corte Inglés-ean.*

diru-laguntzak

- **Umeak Eskolara.**
 Eskaerak aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.
- **Diru-laguntzak ikasleei.**
 Eskaerak aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

farmaziak

- 5, barixakua**
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 6, zapatua**
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 7, domeka**
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
 GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 8, astelehena**
 EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 10)
 GAUEZ Ibarrendo (Zeharkalea, 2)
- 9, martitzena**
 EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 10, eguaztena**
 EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
 GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 11, eguena**
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
 GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 12, barixakua**
 EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

sarrerak salgai

JOSE RAMON OROZKORI OMENALDIA:
 Azaroak 5. 20.30etan.

DONOSTIAKO UDAL TXISTULARIEN KONTZERTUA:
 Azaroak 12. 20.30etan.

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

		3		5		9		
9	4			2				
		8		9				
2				8		4		
		5	3		6	8		
		4		5				1
			2			5		
				6			4	3
6		1			7			

DENBORAPASAK

2	1	3	4	9	7	8	6	5
7	5	9	2	6	8	1	4	3
6	8	4	1	3	5	9	2	7
1	2	8	5	4	9	7	3	6
4	6	7	3	8	1	2	5	9
3	9	5	7	2	6	4	1	8
8	3	2	6	7	4	5	9	1
5	7	6	9	1	2	3	8	4
9	4	1	8	5	3	6	7	2

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. 23.500.000 pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Estaziño kalean. 3 logela. Ganbara eta igogailuarekin. Handia, eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 657-721018. Sonia.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde eta komun bi. Trasteroa eta igogailuarekin. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 657-779628. Alazne.
- Pisu berriztatua alokagai Mutrikun. 3 logela, komun bi eta terraza. Kalefakzioa. Tel. 943-201294 edota 645-728317.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Honda Civic autoa salgai. 1.200 km. la berria. 3.000 euro. Tel. 656-416597.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaie itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Errentan

- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukalde eta komunarekin. Tel. 669-293427.
- Garaie itxia alokagai, 7 metroko trastelekuarekin, San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308.
- Musika talde batek lokala alokatu nahi du. Berdin dio beste batzurekin partekatzea. Tel. 645-722611. Gaizka.
- 1. solairua alokagai Bidebarrieta 23an. Tel. 609-918803.
- 33 m²ko lokala (komuna eta dutxarekin) alokagai Ibarburutze 4ko 1. solairuan. Tel. 636-209131.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 673-875123.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 665-156946. Maria.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia lan bietan. Tel. 943-175420 eta 696-399510.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxea garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-471270.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-709438.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria-laguntzaile titularekin. Esperientzia. Tel. 617-567336.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-715805.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako orduka egiteko. Tel. 663-786976.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 659-731324.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-946074.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 659-037882.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-617818.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (geriatria ikastaroa) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-311385 edota 636-362251.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile titularekin. Tel. 682-263549.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-565303.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-005760.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 659-080186.
- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da 09.30etatik 16.00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-886701.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (gauetz ere bai). Tel. 943-531608 edota 690-212081.
- Geriatria laguntzaile eskaintzen da emakume nagusiak zaintzeko. Prezio onean. Tel. 695-898349.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 670-767916.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Hobe euskeraz badaki. Tel. 943-208439.
- Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.
- Masajista behar da, esperientziarekin. Tel. 943-530066.
- Ile-apaintzailea behar da Eibarren egun erdiz lan egiteko. Tel. 943-207249.
- Asteburuatarako kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-702447.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Paseorako silla salgai. Jane Nomad markakoa eta urdin marinoa, egoera oneko itsas-zakua eta burbuilarekin. 100 euro. Tel. 620-720953.
- Garbigailua salgai. Otsein LTC 451H markakoa. Goitik kargatzena. Era bilien gabe. Tel. 943-121051.

ALFA
www.alfahogar.com

ALFA HOGAR

Torrekoa 101
20900 DIBAR
SPAIN

Tel. +34 943 87 0000
Fax. +34 943 30 40 36



Alfaren kalitate-garantiarekin

emankor

ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ALTUKO ITXITURAK
LEIHOAK-FATXADAK-BEIRATEAK

FABRIKA ETA ERAKUSKETA:
Urtia Industrialdea- C1 pabilioia
ERMUA-BIZKAIA

Tlfnoa: 943 170184
Faxa: 943 170571
e-maila: emankor@euskalnet.net


Leiho isolatzaileak,  kalitate markadunak

Hauxe da leihoak
aldatzeko unea



Energiaren Euskal
Erakundeak (EVE)
diruz-lagundutako
RENOVE PLANA

Eskatu informazioa
eta aurrekontua



TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75